

## Industriaren negozio-zifra Euskal AEko 20 eskualdeetatik 19tan hazi zen 2022an, eskuragarri dauden azken datuen arabera

**Añana (% 2,9), Durangaldea (% 2,7) eta Goierri (% 1,8) dira, hurrenez hurren, enpleguan hazkunderik handiena izan duten eskualdeak Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan**


Euskal AEko manufaktura- eta erauzketa-industriaren negozio-zifraren zenbatekoa % 26,1 igo da 2022an, eta hogeiei eskualdeetatik hemeretzitan igo da, Eustaten datuen arabera.

Lurraldeka, hiru lurraldeetan handitu da negozio-zifra, intentsitate desberdinarekin bada ere. Gipuzkoan % 15,4 igo da, Araban % 23,6 eta Bizkaian % 36,1.

Eskualde-mailako negozio-zifrak joera bera erakusten du; Euskal AEko hogeiei eskualdeetatik hemeretzik urteko hazkunde-tasa positiboak dituzte. Hazkunde handienak izan dituzten eskualdeak Arabako Kantaurialdea (% 72,0), Gorbeialdea (% 40,2) eta Bilbo Handia (% 44,5) izan dira. Gipuzkoan Donostialdea da (% 19,4) negozio-zifraren zenbatekoa gehien igo duen eskualdea.

### ≡ Euskal AEko manufaktura eta erauzketa industriako langileak eta negozio kopurua, eskualdearen arabera. 2022

Urte arteko aldakuntza tasa



Iturria: Eustat. Industriaren gaineko inkesta

Enplegua, batez beste, % 1,2 hazi zen Euskal AEn, eskualde-mailan, eta, lurralde historikoka, adierazle horren onura handiena izan zuten eskualdeak hurrengoak izan ziren: Araban Añana (% 2,9); Bizkaian Durangaldea (% 2,7) eta Bilbo Handia (% 2,2); eta Gipuzkoan Goierri (% 1,8). Arabako Mendialdeak bakarrik izan du bilakaera negatiboa, negozio-zifrak % 7,9 egin baitu behera 2021etik 2022ra bitartean.

Balio erantsi gordinari dagokionez, % 14,6 igo zen eskuragarri zegoen azken urtean, aurreko urtearen aldean. BEG ekoiztakoaren eta erabilitako ondasunen balioaren arteko diferentzia da, sortutako aberastasuna adierazten duena.

Berriro ere, eskualde guztien bilakaera positiboa izan da; horrela, Euskal AEko hoge eskualdeetatik hemezortzik balantze positiboa izan dute, eta negozio-zifrarekin gertatu den bezala, Arabako Kantaurialdea izan da balio erantsia gainerako eskualdeek baino gehiago igo duen eskualdea, % 53,9ko hazkundera iritsi arte.

### **Araba**

Erauzketa- eta manufaktura-industrietako enpleguak % 1,3 egin zuen gora Arabako eskualde guztietan, eta Añana izan zen, lehen esan bezala, enpleguan urte arteko hazkunderik handiena izan zuen eskualdea, % 2,9koa. Aitzitik, lurralde horretako bi eskualdetan enpleguak behera egin du 2021etik 2022ra: Arabako Mendialdean enplegua % 2,8 jaitsi da, eta Arabako Kantaurialdean % 0,6. Gainerako hiru eskualdeetan hazkundeak izan dira: Arabako Lautadan, hiriburua Vitoria-Gasteiz den eta lurraldeko enpleguaren % 63,7 biltzen duen eskualdean, eta Gorbeialdean, % 1,7; eta Arabako Errioxan, neurritsuago, % 0,6.

Negozio-zifrari dagokionez, Araban aurreko urtean baino % 23,6 gehiago izan da; Arabako Lautadan aurreko urtean baino % 18,4 gehiago. Eskualde horretan dago Vitoria-Gasteiz hiriburua, eta lurralde osoaren % 68,7 hartzen du.

Bestalde, Arabako Mendialdean izan ezik (eskualde horretan negozio-zifra % 7,9 jaitsi da), lurraldeko gainerako eskualdeetan hazkunde handiak izan dira. Horietako bitan igoera % 40tik gorakoa da: Gorbeialdea (% 40,2) eta, bereziki, Arabako Kantaurialdea (% 72). Eskualde hori bigarrena da fakturazioari eta enplegu-bolumenari dagokionez, Arabako fakturazio osoaren % 12 eta enpleguaren % 13,6 biltzen baitu. Azkenik, Añana (% 13,4 gehiago) eta Arabako Errioxa (% 11,5) daude.

Balio erantsi gordinari dagokionez, % 14,6ko igoera izan zen Euskal AE osoan. Eskualdeen bilakaera Euskal Autonomia Erkidegoko hoge eskualdeetatik bitan bakarrik izan da negatiboa, horietako bat Araban. Hain zuzen, Añanan, eta balio erantsia % 2 jaitsi da. Araban, oro har, balio erantsia % 11,7 hazi da, eta gainerako eskualdeetan ere aldakuntza positiboa izan da: Arabako Kantaurialdean (% 53,9), Gorbeialdean (% 14,5), Arabako Mendialdean (% 8,4), Arabako Errioxan (% 7,4) eta Arabako Lautadan (% 6,9).

### **Bizkaia**

Bizkaian enplegua % 1,8 gehitu da eta zazpi eskualdeetatik lau urteko aldakuntza positiboa izan dute. Durangaldea (% 2,7), Bilbo Handia (% 2,2), Arratia-Nerbioi (% 1,1) eta Plentzia-Mungia (% 1,0). Gainerako eskualdeetan, enpleguak behera egin du; kasurik adierazgarriena Enkarterrietan gertatu da, % 2,4 enplegu gutxiagorekin. Ondoren, Markina-Ondarroa eta Gernika-Bermeo, biak % 1,5eko jaitsierarekin.

Bi eskualdetan izan da joera positiboa lurraldeko negozio-zifraren bilakaerari dagokionez, % 36,1eko hazkundera izan baitute: Bilbo Handian (fakturazio osoaren % 69,8) eta Durangaldean (% 18,1), eta bien artean Bizkaian erregistratutako guztizko negozio-zifraren % 87,9 izan dute. Bietan bilakaera positiboa izan da: Bilbo Handia % 44,5 hazi da – Bilboko hiriburua bertan kokatzen da eta enpleguaren % 54,5 hartzen du –, eta Durangaldea % 25,7, enpleguaren % 24,8 barnebiltzen duelarik. Bien artean, Bizkaiko enplegu osoaren ia % 80 hartzen dute.

Lurralde horretako gainerako eskualdeek ere, positiboan, aurreko eskualdeek baino aldaketa gutxiago izan dituzte: Arratia-Nerbioi (% 16,8), Markina-Ondarroa (% 14,8), Gernika-Bermeo (% 11,3), Plentzia-Mungia (% 9,8) eta Enkarterriak, lurraldeko joeraren alde gutxien duena, negozio-zifrak % 6,7 egin baitu gora.

Era berean, Bizkaiak izan du balio erantsiaren hazkunderik handiena (% 24,9). Eskualde guztiek, batek izan ezik, bilakaera positiboak izan dituzte, batez ere Bilbo Handiak, % 33,5eko igoerarekin, lurraldeko balio erantsiaren erdia baino gehiago metatzen duena izanik. Ondoren datoz Durangaldea (% 18,7), Markina-Ondarroa (% 8,8), Gernika-Bermeo (% 7,7), Arratia-Nerbioi (% 6,7) eta Plentzia-Mungia (% 6,0). Enkarterrietan, bestalde, balio erantsiaren % 0,6ko beherakada izan da.

## **Gipuzkoa**

Gipuzkoan enpleguarekiko eraginak txikiagoak izan dira (% 0,7) eta, Bizkaian bezala, eskualde horietako lauk bakarrik hobetu dute beren kopurua. Enpleguak Goierri izan du aldakuntza positiborik handiena (% 1,8), eta ondoren Donostialdean, % 1,7ko hazkunderarekin. Bien artean lurraldeko enplegu osoaren % 42,3 dira. Bi eskualde horien ondoren, Tolosaldea (% 1,6) eta Urola Kosta (% 1,4) datoz. Lurralde horretako gainerako hiru eskualdeetan enpleguak behera egin du; hala, Debagoienean, Bidasoa Beherean eta Debabarrenean enpleguak % 0,4, % 1,5 eta % 2,3 egin du behera, hurrenez hurren.

Negozio-zifraren konparaziozko bilakaerak, enpleguarekin gertatzen zen bezala, hirugarren kokatzen du Gipuzkoa Euskal AEko lurraldeen artean. Negozio-zifra % 15,4 hazi den arren, urrun dago Arabako % 23,6tik eta Bizkaiko % 36,1etik. Eskualdeek lurralde osoan duten ehunekoa Bidasoa Behereko % 4,0tik Donostialdeko % 25,3ra bitartekoa da. Azken horren parte-hartzetik hurbil daude Goierri (% 20,7) eta Debagoiena (% 16,6).

Eskualde-mailan, Bidasoa Beherean erregistratutako % 10,8ko fakturazioaren eta Donostialdean erregistratutako % 19,4ko fakturazioaren artean dago; azken eskualde horretan kokatzen da hiriburua, eta Gipuzkoako negozio-zifra osoan enpleguaren tamainaren oso antzeko pisua du. Horrela, Donostialdeak negozio-zifraren % 25,3 eta lurraldeko enpleguaren % 25,5 bereganatzen ditu, kasu bietan Bilbo Handiak eta Arabako Lautadak dituzten zifrak baino txikiagoak. Lurralde horretako gainerako eskualdeetan negozio-zifrak gehitu egin dira, lurraldeetako batez bestekora gehiago hurbilduz. Debagoiena % 16,9 hazi da, Urola Kosta % 14,7, Tolosaldea % 13,6, Debabarrena % 13,2 eta Goierri % 12,7.

Aurreko urtearekin alderatuta sortutako aberastasunak, balio erantsiak, Gipuzkoako lurraldeko negozio-zifraren eta enpleguaren zenbatekoaren antzeko portaera izan du, eta, beraz, % 6,6ko hazkundera, Bizkaiaren (% 24,9) eta Arabaren (% 11,7) azpitik. Bere eskualdeen artean, balio erantsiaren hazkunderik handiena Donostialdean gertatu da, aurreko urtekoa baino % 10,1 handiagoa baita; ondoren, Tolosaldea (% 9,7 gehiago), Debabarrena (% 7,6), Goierri (% 6,2), Bidasoa Beherea (% 6,1), Urola Kosta (% 4,6) eta, azkenik, Debagoiena (aldakuntza positibo txikiena izan du, balio erantsia % 1,7 handitu baita).

## Euskal AEko erauzketa- eta manufaktura-industriaren langile okupatuak, Negozio-zifra eta balio erantsia faktore-kostutan, lurralde historikoaren eta eskualdearen arabera. 2022

|                                            | Langile okupatuak (kopurua) |                |               | Negozio-zifra (milaka euro) |                   |               | Balio erantsia faktore-kostutan (mila eurotan) |                   |               |
|--------------------------------------------|-----------------------------|----------------|---------------|-----------------------------|-------------------|---------------|------------------------------------------------|-------------------|---------------|
|                                            | 2021                        | 2022           | 2022/2021 (%) | 2021                        | 2022              | 2022/2021 (%) | 2021                                           | 2022              | 2022/2021 (%) |
| <b>Euskal AE</b>                           | <b>192.685</b>              | <b>195.068</b> | <b>1,2</b>    | <b>51.297.320</b>           | <b>64.694.540</b> | <b>26,1</b>   | <b>13.110.515</b>                              | <b>15.025.244</b> | <b>14,6</b>   |
| <b>Araba/Álava</b>                         | <b>39.895</b>               | <b>40.415</b>  | <b>1,3</b>    | <b>12.318.994</b>           | <b>15.229.377</b> | <b>23,6</b>   | <b>2.874.581</b>                               | <b>3.211.877</b>  | <b>11,7</b>   |
| Añana                                      | 2.227                       | 2.291          | 2,9           | 612.927                     | 694.894           | 13,4          | 154.086                                        | 151.009           | -2,0          |
| Arabako Lautada / Llanada Alavesa          | 25.333                      | 25.764         | 1,7           | 8.829.076                   | 10.457.313        | 18,4          | 1.904.796                                      | 2.036.500         | 6,9           |
| Arabako Mendialdea / Montaña Alavesa       | 353                         | 343            | -2,8          | 61.659                      | 56.765            | -7,9          | 15.275                                         | 16.553            | 8,4           |
| Arabako Errioxa / Rioja Alavesa            | 3.800                       | 3.822          | 0,6           | 921.751                     | 1.027.922         | 11,5          | 308.663                                        | 331.358           | 7,4           |
| Gorbeialdea / Estribaciones del Gorbea     | 2.652                       | 2.696          | 1,7           | 831.025                     | 1.164.945         | 40,2          | 203.630                                        | 233.143           | 14,5          |
| Arabako Kantaurialdea / Cantábrica Alavesa | 5.530                       | 5.499          | -0,6          | 1.062.557                   | 1.827.538         | 72,0          | 288.132                                        | 443.314           | 53,9          |
| <b>Bizkaia</b>                             | <b>74.353</b>               | <b>75.681</b>  | <b>1,8</b>    | <b>21.701.954</b>           | <b>29.533.494</b> | <b>36,1</b>   | <b>4.921.788</b>                               | <b>6.146.139</b>  | <b>24,9</b>   |
| Arratia-Nerbioi / Arratia-Nervión          | 3.501                       | 3.538          | 1,1           | 826.250                     | 964.972           | 16,8          | 203.741                                        | 217.427           | 6,7           |
| Bilbo Handia / Gran Bilbao                 | 40.337                      | 41.224         | 2,2           | 14.260.001                  | 20.600.709        | 44,5          | 2.793.366                                      | 3.728.278         | 33,5          |
| Durangaldea / Duranguesado                 | 18.314                      | 18.802         | 2,7           | 4.252.414                   | 5.346.153         | 25,7          | 1.239.905                                      | 1.471.774         | 18,7          |
| Enkartzazioak / Encartaciones              | 1.432                       | 1.398          | -2,4          | 274.228                     | 292.625           | 6,7           | 67.197                                         | 66.826            | -0,6          |
| Gernika-Bermeo                             | 3.071                       | 3.025          | -1,5          | 640.420                     | 713.026           | 11,3          | 162.995                                        | 175.471           | 7,7           |
| Markina-Ondarroa                           | 3.229                       | 3.181          | -1,5          | 510.053                     | 585.552           | 14,8          | 167.952                                        | 182.666           | 8,8           |
| Plentzia-Mungia                            | 4.469                       | 4.513          | 1,0           | 938.588                     | 1.030.457         | 9,8           | 286.633                                        | 303.696           | 6,0           |
| <b>Gipuzkoa</b>                            | <b>78.437</b>               | <b>78.972</b>  | <b>0,7</b>    | <b>17.276.372</b>           | <b>19.931.669</b> | <b>15,4</b>   | <b>5.314.146</b>                               | <b>5.667.228</b>  | <b>6,6</b>    |
| Bidasoa Behea / Bajo Bidasoa               | 4.473                       | 4.405          | -1,5          | 725.600                     | 804.131           | 10,8          | 238.986                                        | 253.518           | 6,1           |
| Debabarrena / Bajo Deba                    | 8.311                       | 8.119          | -2,3          | 1.504.862                   | 1.703.453         | 13,2          | 508.901                                        | 547.551           | 7,6           |
| Debagoiena / Alto Deba                     | 14.281                      | 14.231         | -0,4          | 2.834.930                   | 3.312.721         | 16,9          | 1.003.559                                      | 1.020.917         | 1,7           |
| Donostialdea                               | 19.826                      | 20.166         | 1,7           | 4.225.720                   | 5.044.854         | 19,4          | 1.345.594                                      | 1.481.596         | 10,1          |
| Goierri                                    | 13.046                      | 13.277         | 1,8           | 3.659.527                   | 4.125.961         | 12,7          | 980.787                                        | 1.041.494         | 6,2           |
| Tolosaldea                                 | 8.040                       | 8.171          | 1,6           | 2.017.654                   | 2.292.673         | 13,6          | 571.264                                        | 626.401           | 9,7           |
| Urola Kosta                                | 10.460                      | 10.603         | 1,4           | 2.308.078                   | 2.647.876         | 14,7          | 665.055                                        | 695.751           | 4,6           |

Data 2024ko Maiatzaren 10a

Iturria: Eustat. Industriaren inkesta

### Metodologia-oharra:

Erabilitako sektorizazioa Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala (JESN-2009) da, eta eskualdeen arabera desagregazio horretan B (erauzketa-industriak) eta C (manufaktura-industria) sekzioak bakarrik sartzen dira.

### Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística  
C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz  
Prentsa-zerbitzua: [servicioprensa@eustat.es](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tlf: 945 01 75 62